

KULTUR GUNEAREN 4. BILERA

BERTARATUAK:

- Belen: Kultura teknikaria.
- Mikel: Musika Banda eta Txamukos.
- Gemma: Lesakako Abesbatza.
- Patxi: Beti-Gazte (Kultura)
- Olatz: Musika Eskola.
- Juanen: Mairu Antzerki Tailerra.
- Martxel: Txistulari Taldea.
- Garbiñe: Tantirumairu Euskal Folklore Taldea.
- Ali: Atsaspi Lab.
- Estitxu: Bertso Eskola.
- Olaia: HURIH musika taldea.
- Ione: Geroa Bai Udal taldea.
- Iban, Mainer, Ladis eta Mattane: EH Bildu Udal taldea.

1. Ibanek aurkezpena egin du, bilera honetara zein talde gonbidatu diren eta Udalaren jarrera zein izanen den aurkeztuko dela erranez.
2. Ladisek Kultur Gunearen ibilbidea zein izan da laburbildu du; Hasierako solasaldia (Gotzon Barandiaran eta Ximun Fuchena), Larrabetzuko eredu, *Liburu Xuriaren* adibidea (talde bakoitzaren hausnarketa eta bakoitzaren helburu nahiz programazioa zehazten dituen, herriko talde guztiek elkarren berri izateko helburuarekin), 2019ko udaberrian Lesakan hiru bilera egin zirela eta udan geldialdia izan duela bilguneak. Ikasturte berriarekin bat berriz ere ekin zaiola bilera honen bitartez.
3. Ibanek Kultur Gunearekiko Udalaren jarrera zein den azaldu du: Lesakan kultur talde aunitz badirela eta aberastasun handia, ekosistema anitzarekin, bai taldeetan ari diren emaile eta herriko hartzailez osatua. Hilabete behin biltzearen dinamika, bertan eztabaidatzea, eraikitzea eta denen ahotsak aditzeko gunea izatea defendatzen du Udalak. Funtzionamendua zein izanen den bertan adostea ikusten du baita ere eta erabaki guztiak bertan hartzea, eta ez Herriko Etxeko bulego batetan. Hau zailagoa baina aldi berean aberatsagoa izanen dela uste du. Udala bat gehiago izanen da, Udal talde bakoitzak bozka bana izanen dutelarik. Erabakitzeko momentuan talderen bat ez badago, ezinen du deus erabaki eta aldi berean Kultur Guneak adostutakoak eragiten ahalko dio. Hasierako *motore* lana, Udalak berak egingen du, martxan jartzea baina aitzinera begira Gunea bera *bakarrik* dinamizatuko da.

4. Mainerrek erran du, Otik hasiko garela. Udala bat gehiago izanen dela eta helburua Gune hau iraunkorra izatea izanen dela, luzera begirakoa, eta ez lau urtetik behin aldatuko den zerbait. Lehenbiziko, ARAUTEGIA egin beharra dugula; eraikinen funtzionamendua, tasak, diru-laguntzak eta kultur-agenda landuz, puntu hauen inguruko koordinazioa bilatuz. Hortaz gain, bertzelako gaiak ere landuko dira baina aipatu arautegia hasieran zehaztea berebizikoa dela.
5. Mattanek 2020ko diru-laguntzak nola banatuko diren argitu du: Helburua diru-laguntzak eta tasak Bilgunean erabakitzea izanen den arren, 2020koak abendua aitzin onartu behar direnez, aipatu urtekoak Udalak adostu eta banatuko ditu. Helburua denekin berdin jokatzera izanen da, elkarte guztiekin berdinean eta modu paretsuan jokatuz. Azken urteetan egindako hitzarmen individualik ez da izanen. Diru-laguntza horiek banatu ahal izateko irizpideak prestatzeko ari da Udala.
6. Eskaera eta galderetan funtzionamenduari buruzko kezkek azaldu dira: Noiz elkartu, nola bozkatu, proposamenak taldeetan eztabaidatu beharko direla Bilgunean bozkatu aitzin...
7. Hurrengo bilerarako udalak bilgunearen araudiari buruzko zirriborro bat eramatea adosten da, bertan eztabaidatu eta onartzeko. Baita urteko bilgunearen bilera agenda egitea.

Hurrengo bilera Urriaren 5ean goizeko 09:30tan egingen dugu eta bertara, Udalak arautegi baten proposamena ekarriko du.